

- Bezeroekiko harremanak:



Definitu behar dugu zein harreman mota nahi dugun sortu gure enpresa eta bere bezeroen artean. Harremana pertsonala izan daiteke, bezero bakoitzarekin aurrez-aurre egonez, hau da, denda fisikoan. Aldiz, automatizatua ere izan daiteke, web-aplikazioen edota erantzungailu automatikoen bitartez. Bezeroarekiko harremanaz mintzatzean, esan beharra dago harreman mota ezberdinak sor

daitezkeela aldi berean enpresa baten eta merkatu-segmentu baten artean:

Laguntza pertsonala, dedikatutako laguntza pertsonala, autozerbitzua, automatizatutako zerbitzuak, komunitateak eta Sorrera-kidetza.

Gainera urte bateko bermea eskainiko diegu bezeroei produktu bategateik.

